

DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2021

OSALAN

1. Prebentzio ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko baimenaren eta diru-laguntzaren 2021erako deialdia 2
2. 2021ean autonomia-erkidegoetako langileen artean laneko arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza sustatzeko diru-laguntzak emateko deialdia..... 4



1.- Diru-laguntza-programaren izenburua.

Prebentzio ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko baimenaren eta diru-laguntzaren 2021erako deialdia

2.- Araua

125/2018 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez ezartzen baitira EAEko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariek trebatzeko oinarrizko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuak diruz laguntzeko programaren oinarri orokorrak (EHAA 149 zk., 2018ko abuztuaren 3koa).

EBAZPENA, 2020ko abenduaren 2koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bitartez argitara ematen baita 2021eko dirulaguntza deialdi bat, ekitaldi horretan EAEko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariek trebatzeko oinarrizko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuei zuzendua. (EHAA 259 zk. 2020ko abenduaren 28koa)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

125/2018 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa

EBAZPENA, 2020ko abenduaren 2koa

4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Prebentzio-ordezkariek trebatzeko oinarrizko mailako prestakuntza ematea nahi duten erakunde publiko zein pribatuei dei egitea.

Erakundeen baldintzak: Hezkuntza Sistemak aitortutako eta homologatutako ikastetxeak edo-, Prebentzio Zerbitzuak egiaztatutako Erakunde sindikalak izatea.

Prestakuntza-ekintzak oinarrizkoak prestakuntzari buruzkoak izango dira, Osasun Alorreko eta Laneko Arriskuak Prebenitzeko Alorreko Lanbidearteko Akordioa ezarri bezala eta bi zati izango dituzte: bata 16 ordukoa, araudi-arloko prestakuntza, eta bestea 32 ordukoa, prestakuntza teknikoa.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021ean prestakuntza-erakunde berri bat egiaztatu zen. Beraz, 6 erakunde sindikal daude egiaztatuta, 30 prestakuntza-zentro eta 3 prebentzio-zerbitzu, hau da, egiaztatutako 39 erakunde. Hiru lurralde historikoetan banatzen dira gehienak (14 Araban, 26 Bizkaian eta 17 Gipuzkoan).

Guztira 43 ikastaro egin dira Arau Arloan: 6 Araban, 25 Bizkaian eta 10 Gipuzkoan, eta Arlo Teknikoko 40 ikastaro: 7 Araban, 16 Bizkaian eta 17 Gipuzkoan.



6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Arlo Arauan diruz lagundutako Ikastaro kopurua	45	43
Arlo Teknikoan diruz lagundutako Ikastaro kopurua	40	40
Ikasle kopurua	1.200	1.176



1.- Izena

2021ean autonomia-erkidegoetako langileen artean laneko arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza sustatzeko diru-laguntzak emateko deialdia

2.- Arau erregulatzaileria

EBAZPENA, 2021eko ekainaren 2koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak zuzendari nagusiarena; honen bidez arautzen da dirulaguntzak ematea, langile autonomoen artean laneko arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntza sustatzeko, 2021. Urtean.

3.- Arau erregulatzaileria, deialdia eta diru-laguntza emateko ebazpena argitaratzea (EHAAko Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/06/2103619e.pdf>

4.- Diru-laguntzen programa eta helburuen deskribapen laburra

40.000 euro erabiliko dira prestakuntza-jardueretarako. Jarduera horiek, zalantzarik gabe, Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloko prestakuntza sustatzera bideratu beharko dira, Autonomoen Araubide Berezian alta emanda dauden langile autonomoen artean, baldin eta langile horien lanbide-jardueraren helbidea Euskal Autonomia Erkidegoan badago.

Diruz lagun daitezkeen jarduerak aurrez aurre edo on-line saioen bidez eman ahal izango dira. On-line saioak zuzeneko saioetan gauzatu beharko dira aplikazio edo sistema telematikoen bidez, diruz lagundu daitezkeen jardueraren saio guztietan (on-line saio sinkronoak) ikasleek eta irakasleek parte hartuko dutela bermatzeko. Jarduera horiek guztiak gutxienez 30 eskola-orduko prestakuntza-jardueretan gauzatu beharko dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-gauzatzea eta erabilgarritasuna eta eragin soziala

Aurrekontu-gauzatzea 1.200 eurokoa izan da. 6 pertsona prestatu dira ikastaro baten bidez

6.- Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Ikastaro kopurua eta lanaldia	3	1
Prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua	200	6